

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA: % 50AREN ERREKARGURIK IZANGO EZ DUTEN ETXEBIZITZAK

ERREKARGUTIK SALBUETSITA EGOTEKO ARRAZOA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA

Errekargutik salbuesteko arrazoiak (urte hone-tako urtarilaren 1ean gauzatuta eduki behar dira)	Aurkeztu beharreko dokumentazioa
Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, noizean behin erabiltzen direnak. Noizean behin erabiltzen den etxebizitzatzat hartzeko, zerga-sortzapenaren aurreko urtean 8 m ³ -ko gutxieneko ur kontsumoa egin dela egiaztatuko da.	<ul style="list-style-type: none"> • Ur-kontsumoari dagozkion fakturak, zerga sortzapenaren aurreko urtean egindakoak.
Etxejabeen lehen graduko ondorengoek (seme-alabek) duten etxe-premiari erantzuteko erabiltzen diren etxebizitzak. Ez da errekarigirik ordainduko urtebeteko epean, eskatzen den urtea barne. Urtebeteko epe hori amaitu ondoren etxebizitza hori ez badu okupatu etxejabeen lehen graduko ondorengoren batek (seme-alabaren batek), jabeari, ordura arte aplikatu ez zaizkion errekarigu guztiak ordaintzea eskatuko zaio.	<ul style="list-style-type: none"> • Familia liburua edo lehen graduko ondorengo izate hori egiaztatuko duen dokumentua.
Etxejabea zendu ondoren hutsik geratu diren etxeak. Ez da errekarigua ordaindu beharrik izango urtebeteko epean, heriotza-egunetik aurrera zenbatuta.	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotza-ziurtagiria.
Etxejabea zahar-egoitzan sartzeagatik hutsik geratu diren etxebizitzak. Ez da errekarigua ordaindu beharrik izango urtebeteko epean, zahar-etxean edo egoitzan sartzen den egunetik aurrera zenbatuta.	<ul style="list-style-type: none"> • Zahar-etxearen edo egoitzaren ziurtagiria, zein egunetan sartu zen esaten.
Adinagatik edo mendekotasun egoeragatik, etxejabea beste etxe batera eraman denean eta haren etxea hutsik geratu denean. Ez da errekarigirik ordaindu behar izango urte bitan.	<ul style="list-style-type: none"> • Mendekotasun kasuetan: mendekotasuna egiaztatzen duen dokumentua eta bizikidetasun bolantea. Bolanteak egiaztatu behar duena da, mendekotasun egoeran dagoen pertsona eta haren zaintzailea etxebizitza berean daudela erroldatuta. • 85 urtetik gorako etxejabeen kasuan: NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat eta bizikidetasun bolantea. Bolanteak egiaztatu behar duena da, 85 urtetik gorako etxejabea eta haren zaintzailea etxebizitza berean daudela erroldatuta.
Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren sortzapen uanean, berritzen ari diren eraikinak. Behin eskatu ahalko da salbuespen hau.	<ul style="list-style-type: none"> • Obrei dagokien udal lizentzia eman dela dioen ebazpena.
Errentan utzitako etxebizitzak.	<ul style="list-style-type: none"> • Indarrean dagoen errenta-kontratua.
Aurri egoeran egon edo birpartzelatazio-proiektu onetsia duten etxebizitzak. Errekarguaren salbuespena jabeak bizigarritasun-falta egiazta dezakeen egoeretara hedatuko da, betiere, etxe jabeak ez badio uko egin, justifikaziorik gabe, etxe bizitza egoera duinean izateko betebeharrari.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz.
Higiezinaren merkatuan saltzeko edo errentan emateko dauden etxebizitzak, baldin eta; <ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzaren salmenta-prezioak etxearen balio katastrala 2,2 koefizientearekin biderkatuta ateratzen den zenbatekoa gainditzen ez badu. • Urte osoko errentaren prezioak etxearen balio katastrala 2,2 koefizientearekin biderkatuta ateratzen den zenbatekoaren % 4a gainditzen ez badu; ezta hileko 700€ eurotik gorako zenbatekoa ere. 	<ul style="list-style-type: none"> • Higiezinaren agentzia baten bitartekaritza-zerbitzuak erabiltzean: saltzeko edo errentan uzteko kontratua. • Higiezinaren agentzia baten bitartekaritza-zerbitzurik erabiltzen ez denean: deklarazio bat, etxebizitza higiezinaren merkatuan dagoela egiaztatzeko frogabideekin lagunduta (saltzeko edo errentan emateko dagoela dioten kartelei ateratarako argazkiak, web-orrietan egindako publizitatearen egiaztagiria...).
Erabilera profesionaletarako, merkataritza- edo enpresa-erabilerarako etxebizitzak; elkarte politikoen, elkarte sindikalen edo enpresa elkartearen egoitzak; diru irabazi asmorik ez duten elkarteak hartzen dituztenak.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz.
Etxejabea edo haren ezkontidea, lanagatik, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dagoen beste udalerririk batera bizitzera joaterakoan hutsik geratu diren etxebizitzak. Ez da errekarigua ordaindu beharrik izango 2 urteko epean, beste Autonomia Erkidego batera joandako egunetik aurrera zenbatuta.	<ul style="list-style-type: none"> • Erroldatze-bolantea, etxejabeak gaur egun duen bizilekuarena. • Ziurtagiria, etxejabeak edo haren ezkontidea lan egiten duen enpresak egindakoa.
Ostatu, pentsio edo hotel diren etxebizitzak, baldin eta dagokien jarduera lizentzia badute.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz.
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga-sortzapenaren aurreko 6 hilabeteetan erositako etxeak.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz.